

Kostuen egitura

EcoTask martxan jartzeko eta mantentzeko kostu finkoak eta aldakorrak kontuan hartu behar ditugu. Kostu finkoak dira aplikazioa diseinatzeko eta garatzeko gastuak eta zerbitzari eta mantentze lanen kostuak, adibidez Firebase eta webgunearen mantentzea. Kostu aldakorrak erabiltzaileen jardueraren arabera aldatzen dira eta horien artean daude erabiltzaileei ematen dizkiegun sariak edo ekitaldi berezien antolaketa. Hasierako kalkuluen arabera 1.000 eta 1.500 euro artean beharko ditugu proiektua abian jartzeko.